

Mundu honetan ez dago nahitaez sozialista izan beharrik, baina batzuek sozialista izan nahi dute. Izan nahi ez duenak, edo izateari inportantziarik ematen ez dionak, eta abar, badu Euskal Herrian zein Alderdiri atxiki.

Baina badago jarrera bat ere, arrunt sozialismoaren alde. Azken urteotan berri asko zabaldu bait da sozialismoaren inguruan. Marx, eta Che Guevara, eta ezker berriak eta zaharrak, eta abar, etengabe aipatu dira. Urteotan deus besterik ez da Euskal Herrian hori haina aipatu. Eta ideia sozialisten zabalkunderik egin da. Sinpatiarik biztu da. Girorik sortu da. Kultur lanetan ari den askok, esate baterako, sentiera eta pentsaera sozialistak ditu. Baina Alderdi mailan ez da sartzen, sinpatiaren batzuk eduki arren. Beraz, aurretiazkorik sortu da, Alderdi Sozialista antolatzeko.

Alderdi Sozialista bat eskatzen duen premiarik aski bada bazter honetan. Eta Alderdi Sozialistarik sortzeko giroa bada iadanik. Alderdi Sozialista behar da.

Aukera sozialista bila dezanak, aukera hortarako Alderdia behar du. Hemen sozialismoa tradizionalki hezur-mamitu duten Alderdiak PS (OE) eta PC (E ta de E) izan dira. Beste mugimenduak oso gazteak dira. Klandestinitatean sortuak, klandestinitaterako bururatuak, eta klandestinitateko tankeraz gehienbat, pentsamoldez nahiz antolamoldez.

Alderdi klasiko haiek, PS (OE) eta PC, ez dira guzien gustokoak, orain azaldu beharrik ez dagoen arrazoi askogatik.


Eta zer esan talde berriagoetaz? Beharbada masa Alderdi baten asmoak zerbaít kezkatuko ditu taldeok... Alderdi Sozialista baten premia dagoela esanez, izan ere, horietaz gainera besterik ere behar dugula, aitortzen da. Honek ez du esan nahi, horiek beren eginkizuna betetzen ez dutenik eta horiek ere behar ez ditunik. Horien posibilitateak eta mugak eztabaidatzeko lekua ez dugu hau, horien txalotzeko lekua ez dugun moduan. Ezin ukatuko diegu, joandako urteotan egin duten lan izugarria. Eta beren lanean jarraituko direla, espero dugu. Beren lana dute. Euskal Herriak behar ditu. Alderdi Sozialista zabal baten zentzua ezin izan liteke horiei beren lekua kentzea, horiekin ere gelditzen den hutsunea betetzea baino.

Zer hutsune gelditzen da? Zaila da honi garbi erantzutea, Alderdi horiek banan-banan aztertu gabe. Bakoitzak bere erako hutsuneak uzten bait ditu. Halare punturen batzuk seinala litezke.

Sozialismoak ez du etorkizunik Euskal Herrian, masa mugimendu eta masa erakunde bilakatzen ez bada. Eta Alderdiok nekez bihur litezke masa

# Masa Alderdi Sozialista bat

Joxe AZURMENDI



AJEDREZ SOZIALISTA.

erakunde. Hori dudatzeko Alderdien beren barneko eta kanpoko kausak daude.

Kanpokoak ikusten dira errazena. Hasi dira gauzak aldatzen. Baina Alderdi horiek «normal» ihardun ahal izateko haina, aldatu arte, denbora asko pasako da. Alderdi horiek oso kondizio desfaborableak izanen dituzte ekintza publiko batetarako.

Bestalde, Alderdi horiek bide gogorretik ari dira. Eta, hemen jendeteria horrenbeste radikalizterik ba ote dagoen, ez da gauza segurua. Alderdien beren barneko eta bai kanpoko kausa genuke hau. Gainera, radikalitasun gogorak oraingoz minoria baten bidea izan behar baldin badu, komeni ere ez da komeni, Alderdiok «biguntzea» eta masa erakunde bihurtzea, beren egungo bai mistika eta bai barne eraketa guziz aldatuz. Euskal Herriarentzat hobe da beren bide herstuan segitzea, berak masa erakunde bihurtzea sakrifikatuz.

Joan den urteotako beren historia-gatik, desarroillatu duten ekintzagatik nahiz pentsamoldeagatik, bildu duten pertsonalagatik ere beharbada, ikasi dituzten metodoengatik, bitartean egin dituzten adiskide eta etsaiengatik, eta abar ere, ez dirudi, Alderdion zereginak masa erakunde bihurtzea izan behar lukeenik.

Iragan urteotako historia mugimenduko sozialistaren ezpalketa historia da. Sozial aldera behin eta abertzale aldera bestean, etenak eta hautsiuneak bata bestearen ondoren etorri dira. Gaur langile frontea galtzen zen, bihar kultur frontea. Historia hori dena pertsona batzuen txatxukeriaz espli-

katu nahi izatea, bere burua baingaitu nahi izatea da. Espainolkeriaren gaitza aipatzea, ezer esplikatzeko duen baino esplikatu beharrago dagoenik da. Zenbait radikalismok, beti ere, nahitaez sortzen ditu alternatibak. Motza izan behar da, ia akabatuta dagoen herri zanpatu batetan abertzaletasun radikala ez konprenitzeko. Baina batek begien aurrean beti euskara eta horiek besterik ez badu, ez da harriztekoa, besteak beti langileak baizik ez aipatzea. Eta bakoitza bere alderdian setatzen eta itsutzen denean, eskribismoak berak eskluitzen du elkartasuna. Barnean teinkak eta tiradurak eraman ditzakeen masa erakundeak, horregatik hautsiko ez dena, bestelako planteamolde batzuen gainean bakarrik eraiki liteke. Eta masa erakunde honen alboetan, beste sail radikalagoek beren zeregina izango dute. Bestela ez dute zentzurik. Indar sozialisten harakiri hutsa dira.

Sozialismoa Euskal Herrian mila joera eta eskolatan hautsita dago. Talde horiek, nahitaez, elkarren kide bezain elkarren etsai izan beharrean daude, beren arteko diferentziek funtsik batere baldin badute. Beren elkar lanak luzarora ezin galeraz lezake elkarren kontra ere egin beharko duten lana. Taldeon Mahain batek, ba, komete batek adibidez, ez du suplantatzen masa Alderdi Sozialista baten premia. Aitzitik, halako Mahain horrek erakusten du masa Alderdi Sozialistaren premia larri bizia.

Sozialismoak laster erakutsi beharko ditu bere ahalmenak norgehiagoka politikoan. Sozialistak badaki, eta ondotoxo daki, Alderdien arteko lehiaketak ez dela ekintzaren maila bat besterik, ez bakarria. Burrurak beste alderdi eta maila eta era asko duela. Ez gara orain masa Alderdi Sozialista baten dogmatismoan eroriko, ekintza oro Alderdi baten bitartez zuzendu eta burutu behar dela predikatzen. Baina Alderdi mailako burruka, bakarria ez izan arren, biziro inportantea izango dugu laster. Beste burruka formak zabartu gabe, burruka hori ere gogor egiten jakin beharko du euskal sozialismoak.

Inork ez daki, aurrez, Euskal Herrian sozialismoak zenbaterainoko posibilitateak dituen. Baina ondorengo urteotan masa Alderdi Sozialista bizi eta indartsu batek lituzke posibilitaterik haundienak. Momentu honetan, sozialista guzien obligazioa halako Alderdiari apoiatzea da. Nor bera beste erizitakoa denak ere, radikalenak ere, orain eta hemen, masa Alderdi Sozialista bat indartzen eta zabaltzen ahalgindu behar du. Hori lortzen ez bada, euskal sozialismoak berriz ere okasioa galduko du. Eta bataila galduko du, orain hemen eman behar zuen bataila eman ez duelako.